



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urtarrilaren 26a

10. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

#### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Interpelazioa, Haur Hezkuntzako lehen zikloari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, eskola-aurreinskripzioko kanpainei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua premiatzen da urgentziaz ezar ditzan beharrezkoak eta nahikoak diren neurriak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-baliabideak egoera errealerara egokitzekoak. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera azterlan bat egin dezan, ziberjazarpena foru erkidegoan zertan den eta molde eta adin guztietan zenbaterainokoa den jakiteko datu gaurkotuak edukitzeko. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da instalazio fotovoltaikoen egungo ordainsariak izoztu ditzan, horien erregulazio-bizitzaren amaiera arte. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Nafarroako Gobernuak onetsitako araua, Hezkuntza Departamentuko maisu-maistren 73 lanpostu hutsen espezialitateak eta hizkuntzak ezartzen dituena. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kofinantzaketa-akordio bat itxi dezan Beriaingo Udalarekin, Beriaingo Eskualdeko Ikastetxe Publikoko berokuntza eta etxeko ur beroko sistema berrietzeko. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan Pitillasko ikastetxe publikoan 2015-2016 ikasturtean irekita zegoen eta 2016-2017 ikasturtean kendu den eskola-unitatea berrezartzeko. Mozioa erretiratzea (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua pentsioak KPIaren arabera gaurkoztearen alde azaltzen baita. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten baitu espetxealdi iraunkor berrikusgarria dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, jakitekoa ea zer alde dagoen, ingeles eskolei eta ingelesezko eskolei dagokienez, Ingelesez Ikasteko Programa edo British programa ezarria duten ikastetxe publikoen artean. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, “948 Merkatua” sustatze aldera hedabideetan azaroaren 14an argitaratutako elkarrizketei buruzkoa. Cristina Altuna Ochotorena andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Gipuzkoako lurralde historikoan bidesariak ezarri eta gero A-15 autobidean eta N-121-A errepi-dean dagoen trafikoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, beren etxebizitzak Nasuvinsaren alokairu-poltsarako lagatzen dituzten jabeentzako diru-laguntzari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren kudeaketa hobetzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (14. or.).
- Galdera, ikasleak terrorismoa dela-eta kontzientziazte aldera ikastetxeetan jarduketak egiteko programari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, ingelesezko murgilketa barnetegietara joateko plaza-kopurua murrizteko arrazoiei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, ikastetxeetan fruta eta barazkien banaketa atzeratu izanaren arrazoiei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, guraso bakarreko familiek familia eta lana bateragarri egiteko 2017ko laguntzen deialdiari buruzkoa. Mónica Domenech Linde andreak egin du (17. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak bere gain hartuta ote daukan dominei edo beste errekonozimendu-motaren bati lotutako inolako pentsio-gasturik. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Euskararen Nafar Kontseiluko bost kideak hautatzea (19. or.).
- Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen eta kontrataturiko langileen 2018ko ordainsariak (20. or.).
- 2018an indarrean dagoen Nafarroako Parlamentuaren plantilla organikoa aldatzea (21. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Interpelazioa, Haur Hezkuntzako lehen zikloari buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa, Haur Hezkuntzako lehen zikloari buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **JABELDURAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Hezkuntzako kontseilariarentzako interpelazioa, oro har Haur Hezkuntzako lehen zikloari buruzkoa.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

## **Interpelazioa, eskola-aurreinskripzioko kanpainei buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa, eskola-aurreinskripzioko kanpainei buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **JABELDURAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Hezkuntzako kontseilariarentzako interpelazioa, oro har eskola-aurreinskripzioko kanpainei buruzkoa.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

**Mozioa. Horren bidez, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua premiatzen da urgentziaz ezar ditzan beharrezkoak eta nahikoak diren neurriak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-baliabideak egoera errealerara egokitzekoak.**

*IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua premiatzen baita urgentziaz ezar ditzan beharrezkoak eta nahikoak diren neurriak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-baliabideak egoera errealerara egokitzekoak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Herritarrekiko Harremanetako Batzordean eztabaidatzeko.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak genero-indarkeriaren biktima gisa hartzen ditu, beren bikotekidearen edo bikotekide ohiaren erasoak pairatu dutenez gain, zeinak Estatuko legean jasota baitaude, beste emakume batzuk ere. Lege honek genero-indarkeriaren biktima gisa hartzen ditu, esate baterako, emakume-salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeak, edo beste gizon batzuen erasoak pairatu dutenak, gizon horiek ezagunak ala ezezagunak izan.

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko ekintza-planak –zeinak 14/2015 Foru Legearen 75. artikulua garatzen baitu– 6 urtean (2016-2021) garatu beharreko jarduketa-sorta bat jasotzen du, eta horietara 22,5 milioi euro bideratuko ditu.

Plan horretako lau ardatzetako batek –"Emakumeentzako eta haien seme-alabentzako laguntza integrala" izenekoak– zenbait esparrutan esku hartzeko neurriak jasotzen ditu: detekzioa, laguntza, babesa, justizia eta erreparazioa. Atal horretan protokoloak aurreikusten dira indarkeria-egoerak osasungintzaren eta zerbitzu sozialen ikuspuntutik detektatzeko eta artatzeko, baliabide eta zerbitzu publikoen zorroa prestatzeko eta horien estaldura Nafarroa osora hedatzeko; indarkeria-egoera bizi diren emakumeei laneratzea eta etxebizitza lortzea errazteko laguntzak; bai eta poliziaren lana nahiz laguntza eta aholkularitza juridikoa homogeneizatzeko eta koordinatzeko ekintzak ere.

Gure ustez, harrera-baliabideak ez dira aski eskari errealarari aurre egiteko, ez baitira aski emakume horiei guztiei eta horien seme-alabei segurtasun eta konfidentziasun bermearekin arreta emateko. Egia da baliabideak handitu egin zirela zerbitzu horiek baliatzeko eskubidea duten emakumeen, nerabeen eta neskatuen egoerak ugartu zirenean, baina emakumeak hoteletara bidaliak izaten ari dira harrera-espazio berekietan tokirik ez dagoelako, eta giza baliabideak ere ez dira aski zenbaitetan, astean zehar.

Ondo dakigu Herritarrekiko Harremanetako Departamentua Nafarroan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-baliabideak ebaluatzen ari dela, baliabide horiek hobetzeko helburuarekin.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Herritarrekiko Harremanetako Departamentua premiatzen du urgentziaz ezar ditzan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-baliabideak egoera errealerara egokitzeko beharrezkoak eta nahikoak diren neurriak (egiturazkoak, antolamendukoak eta giza baliabideak handitzekoak), abiapuntu gisa harturik dauden baliabideen eta eskarien ebaluazioa.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 15ean

Eleduna: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera azterlan bat egin dezan, ziberjazarpena foru erkidegoan zertan den eta molde eta adin guztietan zenbaterainokoa den jakiteko datu gaurkotuak edukitzeko.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera azterlan bat egin dezan, ziberjazarpena foru erkidegoan zertan den eta molde eta adin guztietan zenbaterainokoa den jakiteko datu gaurkotuak edukitzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Ziberbullyinga edo ziberjazarpena da baliabide telematikoa erabiltzea pertsona bat edo pertsona-talde bat esesteko, estutzeko edo jazaritzeko, betiere adingabe bat tartean dela.

Unicef-en arabera, adingabea da Interneten edozein euskarriren hiru erabiltzailetik bat, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Net Children-Go Mobile txostenaren arabera, emakumeak dira jazarpen-mota hori gehien pairatzen dutenak. Txostenak orobat dio 16 urtetik aitzina nabarmen jaisten dela indarkeria-molde hori. Halaber, Save the Children elkartearen "Yo a eso no juego. Bullying y Ciberbullying en la Infancia" txostenaren arabera, inkesta egin zaien Nafarroako haurren ehuneko 4,1 izan da inoiz ziberjazarpenaren biktimak, eta ehuneko 0,5, berriz, maiztasunez. Hartara, Nafarroak toki ona du ranking nazionalean, batez bestekoaren azpitik baitago (ehuneko 5,8

eta 1,1, hurrenez hurren), nahiz eta inoiz ere ez den aski.

Bai Unicef-ek, bai Euskal Herriko Unibertsitatearen "Net Children-Go Mobile" txostenak, bai Save the Children elkartearen "Yo a eso no juego. Bullying y Ciberbullying en la Infancia" txostenak aurkeztutako datu guztiek 2 urteko antzinatasuna dute gutxienez ere; hortaz, baliabide digitalak herritarren artean izaten ari diren hazkunde esponentziala ikusita, oso litekeena da datu horiek are kezkarriagoak izatea gaur egun.

Arlo horretan indarrean dagoen legedia ez da ugaria, baina egon badago; esaterako, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea hein batean aldatzen dituenak, zeina Haurren eta nerabeen babes-sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen bidez aberastu baitzen. Nazioartean, Nazio Batuen konbentzioen barruan, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989ko azaroaren 20koa, 1990eko azaroaren 30ean berretsia, eta haren hautazko protokoloak. Nafarroan, abuztuaren 23ko 57/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16ko 204/2010 Foru Agindua, eta Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzko uztailaren 2ko 57/2014 Foru Dekretua.

Halere, araudi hori guztia aski ez dela edo zaharkiturik dagoela esan daiteke, nahiz eta Nafarroan "Laguntza Programa" daukagun, ikastetxeetan irakasleekin eta ikasleekin eskola-jazarpena lantzea bilatzen duena. Asmo handiko programa bat da, hezkuntzaren arlokoa, baina ez du ziberbullyinga arlo horretatik kanpo jorratzen, nahiz eta batez ere ikastetxeetatik at gertatzen den, eguneko 24 orduetan eta pertsonen arteko kontaktu fisikorik egon behar izan gabe. Ziberbullyingak estamentu guztiek publikoki zeharo errefusatzeko eskatzen du.

Ziberjazarpenaren ondorioz eman daitezke genero-indarkeria, groominga (horren bertsiorik makurrenatan, pederastia kasuak ere gerta litezke) edo sextinga (eduki sexuareko irudiak bidal-

tzea), eta ez da zertan eman eskolatutako pertsonen artean; hortaz, beharrezkoa da beste eragile sozial asko ere inplikatzera, hezkuntzakoak ez ezik.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera azterlan bat egin dezan, ziberjazarpena foru erkidegoan zertan den eta molde eta adin guztietan zenbaterainokoa den jakiteko datu gaurkotuak edukitzeko.

– Jarduketa-plan eraginkor bat presta dezan detektatutako edo salatutako ziberbullying kasuetarako, zeinean jasoko baita zer jarduketa-protokolo bete beharko duten polizia-kidegoek, ikastetxeek, inplikaturakoen gurasoek edo tutoreek,

osasun- edo/eta gizarte-zerbitzuek eta egoki irizitako eragile guztiek.

– Nafarroko ziberjazarpenaren analisia eta jarraipena egiteko lantalde bat eratu dezan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien zerbitzuak ematen dituzten enprekin batera lan egiteko. Lantalde horretan parte hartuko dute, guztien ere, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, Foruzaingoak, Hezkuntza Departamentuak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak.

– Ziberbullyingaren aurkako publizitate-kanpaina positibo bat abiaraz dezan, gehienbat sare sozialak edo/eta Nafarroako Foru Komunitateko gazteak ibiltzen diren espazioak erabilia.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 16an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da instalazio fotovoltaiako egungo ordainsariak izoztu ditzan, horien erregulazio-bizitzaren amaiera arte.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita instalazio fotovoltaiako egungo ordainsariak izoztu ditzan, horien erregulazio-bizitzaren amaiera arte.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kide Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko honako

mozio hau aurkeztu du, Mahaian eta Eledunen Batzarrean izapidetzeko:

Espainiako Gobernuak, errege dekretuen bidez eta “El sol puede ser tuyo” publizitate-kanpainaren bidez, espainiar familiak animatu zituen beren aurrezkiak eguzki-energia fotovoltaiakoaren garapenera eta produkziara bidera zitzaten.

Higiezinetan nahiz burtsan inbertitzeko aproposa zen egoera batean (2004-2007), Nafarroako 9.665 familiak –era horretako inbertsioetatik ihes egin nahi zutenek– hautatu zuten beren aurrezkiak beste xede batera bideratzea –energia berriztagarriak sortzea–. Halatan, Espainiak pausoak eman zitzaizkeen Kiotoko nazioarteko konpromisoak eta ingurumenaren alorrean Europar Batasunaren helburuak betetzeko.

Espainiako Gobernuak inbertsio mota hori sustatu zuen, errentagarria, oso segurua eta gizarte konpromisokoa zelakoan, eta Industria Ministerioak berak gomendatu zuen, IDAE-Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuaren bitartez, instalazioen kostuaren % 80 finantzatzea.

Hala ere, plantak finantzatuta, ezarrita eta abian egon eta hilabete gutxitara, Nafarroako

9.665 familia horiek aurre egin behar izan zioten atzeraeragina zuten dekretuen sorta etengabe bati, zeinek modu kezkarriaren moztu baituzte jatorrizko baldintzak finkatu zituzten Estatuko Aldizkari Ofizialetan agertzen ziren errentagarritasunak, bermatzen ziren diru-sarreren % 30etik % 50era bitarteko murrizketekin. Horrek, orain, ezinezko bihurtzen du ekoizleek beren gain jasotako ordainketa-konpromisoerik aurre egitea.

Teknologia berriztagarriak tarifa bidez sustatzea ez da izan Espainiaren berezitasun bat. Herralde garatu guztietan egin da. Bereziki, Europar Batasunean, energiaren arloan duen badaezpadako posizioagatik. Tarifa arautua gutxituz joan da, ikaskuntza-kurba fotovoltaikoak horretarako bidea eman ahala.

2010eko abendutik 2013ko uztaile bitarte, ekoizle fotovotaikoen interesen aurkako hamaikak txo arau-testu onetsi zen.

Aurreko guztia dela eta:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du egungo ordainsariak izoztu ditzan instalazio fotoboltaikoen erregulazio-bizitzaren amaiera arte, eta ez dadin berriz ere egin horien ordainsaria gutxitzea ekar dezakeen inolako murrizketa gehigarririk edo eguneratzerik.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Nafarroako Gobernuak onetsitako araua, Hezkuntza Departamentuko maisu-maistren 73 lanpostu hutsen espezialitateak eta hizkuntzak ezartzen dituenak.**

### *ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Nafarroako Gobernuak onetsitako araua, Hezkuntza Departamentuko maisu-maistren 73 lanpostu hutsen espezialitateak eta hizkuntzak ezartzen dituenak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorte-etako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Urtarrilaren 17an –asteazkena– Nafarroako Gobernuak erabaki bat onetsi zuen gobernu-bilkuran, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren mendeko erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatu baitzuen eta Hezkuntza Departamentuko maisu-maistren 73 lanpostu hutsen espezialitateak eta hizkuntzak ezarri baitzuten. Lanpostu huts horiek maiatzaren 4ko 27/2016 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen martxoaren 25eko 20/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako lan-eskaintza publikoan zeuden jasota.

Hartutako erabakian ezartzen denez, maisu-maistren 73 lanpostu huts horietako 39 euskarazkoak izanen dira, eta 34 gaztelaniazkoak:

– 23 lanpostu Haur Hezkuntzan: 12 euskaraz eta 11 gaztelaniaz.

– 50 lanpostu Lehen Hezkuntzan: 27 euskaraz eta 23 gaztelaniaz.

Erabaki horretan justifikaziorik gabeko aldea dago, hizkuntzaren arabera, deitutako lanpostuen

artean, eta ez da Nafarroako hezkuntza-sistemaren errealitatearen eta beharrezanaren araberakoa, irizpide politiko eta partidistetan oinarrituta baitago, ezen ez hezkuntza eta pedagogia planteamenduetan.

Onespen horrek, halaber, hautsi egiten du funtzio publikoko lanpostu baterako sarbidea gidatu behar duen aukera berdintasunaren printzipioa. Are gehiago, bitarteko postuen kopuruak eta sistemaren beharrezanek erabaki hori justifikatzen ez dutenean.

Gobernuak onetsitako arauak ziurgabetasun juridiko handiagoa ere badakar Hezkuntza Departamentuak hartutako erabakiei dagokienez; izan ere, ez da ahaztu behar Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak balio gabetu egin zituela 2016an egindako Lehen Hezkuntzako oposizioetako euskarazko ehun bat lanpostu, eta horren ondoriozko egoerak konpondu gabe dirauela.

Horregatik guztiagatik, honako mozio hau aurkezten dugu:

Erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 17an egindako bilkuran onetsitako araua, zeinaren bidez ezartzen baitira Hezkuntza Departamentuko maisu-maistren 73 lanpostu hutsen espezialitateak eta hizkuntzak, maiatzaren 4ko 27/2016 Foru Dekretuaren bidez aldatutako martxoaren 25eko 20/2015 Foru Dekretuaren ondorio direnak, uste baitu desorekatua dela, justifikaziorik ez duela eta Nafarroako hezkuntza-sistemaren errealitateak eta beharrezanetatik urrun dagoela.

2.- Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du maisu-maistren 73 lanpostu horiek halako moduan bana ditzan espezialitateetan eta hizkuntzetan non errespetatu egiten baita Haur eta Lehen Hezkuntzan euskarari eta gaztelaniari dagokienez dagoen oreka erreala.

Corellan, 2018ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kofinantzaketa-akordio bat itxi dezan Beriaingo Udalarekin, Beriaingo Eskualdeko Ikastetxe Publikoko berokuntza eta etxeko ur beroko sistema berritzeko.**

*LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kofinantzaketa-akordio bat itxi dezan Beriaingo Udalarekin, Beriaingo Eskualdeko Ikastetxe Publikoko berokuntza eta etxeko ur beroko sistema berritzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Beriaingo Eskualdeko Ikastetxe Publikoak inbertsio handia egin ahal izan du 2017an, batik bat bideratua bere ingurukari termikoa hobetzera eta estalkiak berritzera. Guztira, 507.000 euroko kostua izan du. Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntzak (480.000 euro) inbertsio horren parterik handiena betetzeko balio izan du, eta gainerakoa Udalak hartu du bere gain.

Parlamentu honetako Hezkuntza Batzordeak aurtengo urtarrilaren 17an egindako bisitan parte hartu genuen parlamentariok atseginez ikusi ahal izan genuen obrak behar bezala eta egokiro egin direla. Halere, aldi berean egiaztatu ahal izan genuen muntako inbertsioak daudela oraindik ere



egiteke, eraikinak behar bezala erabiltzeko egoeran geratu arte.

Falta diren inbertsio horiek honako lau atal hauetan laburbil daitezke: berokuntza, arotzeria, fatxadak (konponbide ekonomikoenaren alde egin arren, diru-laguntza ez da fatxada guztiak estaltzeko aski izan) eta estalkiak (hondatuena eta zuntz-zementuzkoak berritu dira, baina egin gabe gelditu dira beste batzuk, horiek ere hondatuak eta behar bezalako isolamendurik gabeak).

Berokuntza da horietatik urgentena dela ematen duena. Egungo instalazioak arazo handiak ditu; adibidez:

- 45 urtetik gorako antzinatasuna, erreforma bakar batekin (gasolioaren ordeztasun gas naturala jar-tzea).
- Modulu bat matxuratuta dago, eta plaka-tru-kagailua ez dago behar bezala dimentsionatuta, halako moduan non eraikinaren zenbait tokitara ez baita behar besteko berorik iristen, irakasleen eta ikasleen kalterako.
- Koadro elektrikoak ez du Behe Tentsioko Erregelamendua betetzen.
- Banaketa-sarea oso gaizki dago; ihesak zirkuitua hustera eta berokuntza-sistema amatatzera behartzen dute etengabe, ihesa gertatzen den bakoitzean hain zuzen ere. Kaltea ikasleek eta irakasleek pairatzen dute, konponketa egiten den bitartean.
- Kolektoreetan isolamendurik ez egotearen eraginez, ur beroa ez da behar bezain bero iristen erradiadoreetara.
- Eremuren batean kanpoko tenperatura kontrolatzen ez denez, funtzionamendu jarraituko erregimena baliatu behar da, eta horrenbestez beroa alferrik galtzen da.

Horren guztiaren ondorioz, sistema osorik aldatu beharra dago, eta udal teknikariek esaten dutenez 223.200 euro gastatu beharko dira. Argi geratu da erreforma hori egin beharra dagoela eta lehenbailehen egin behar dela. Fatxadarik eta estalkirik gehienak isolatu dira, baina berokuntzak huts egiten baldin badu, eta sarritan huts egiten du, egindako inbertsioak ezer gutxitarako balio du.

Aintzat hartu beharreko beste kontu bat da sistema udan soilik berritu daitekeela, ageriko bi arrazoiengatik: ikastetxea erabiltzen den hilabete-etan ezin da berokuntza eta ur beroa kendu, eta, bestela eginez gero, obrek enbarazu egiten liekete erabiltzaileei. Halatan, bada leihotzat –2018ko uda– obra hori egiteko. Bestela, 2019ra arte atzeratu beharko litzateke, eta horrek arriskuan jar dezake heldu den ikasturtea onik egitea.

Horregatik guztiagatik eskatzen dut honako erabaki proposamen hau Osoko Bilkuran onartzea eta izapidetzea:

Nafarroako Gobernua premiatzen da:

1. Mozio honetan proposatzen den diru-laguntza –Beriaingo Eskualdeko Ikastetxe Publikoko berokuntza eta ur beroko sistema berritzekoa– Beriaingo Udalarekiko kofinantzaketa-akordio baten bitartez ezarri behar baldin bada, urgentziaz egin dadin akordio hori, obrak 2018ko udan zehar egin ahal izan daitezkeen bitartean.
2. Kofinantzaketa-akordio hori egitea ezinbestekoa ez baldin bada, Beriaingo Eskualdeko Ikastetxe Publikoko berokuntza eta ur beroko sistema berritzeko aurreikusitako gastu osoa finantzatu dadin.
3. 2018ko aurrekontuen kargura ezar dadin arestian aipatutako gastuaren zenbatekoa ordaintzeko diru-laguntza.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan Pitillasko ikastetxe publikoan 2015-2016 ikasturtean irekita zegoen eta 2016-2017 ikasturtean kendu den eskola-unitatea berrezartzeko.**

*MOZIOA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa erretiratu duela. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan Pitillasko ikastetxe publikoan 2015-2016 ikasturtean irekita zegoen

eta 2016-2017 ikasturtean kendu den eskola-unitatea berrezartzeko. Mozioa 2016ko urriaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua pensioak KPIaren arabera gaurkotzearen alde azaltzen baita.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du pensioen erosahalmena bermatu beharra dagoela,

eta berreskuratu beharra dagoela haien gaurkotzea KPIaren arabera egin dadila”.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa adierazten baitu espetxealdi iraunkor berrikusgarria dela eta.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du espetxealdi iraunkor berrikusgarria, PPK Kode Penalaren 2015eko bere erreforman sartutakoa, zeren eta birgizarteratze-printzipioaren eta Konsti-

tuzioaren 15. artikuluan jasotakoa den zigoren humanizazioaren printzipioaren aurkakoa baita.

2. Nafarroako Parlamentua espetxealdi iraunkor berrikusgarriaren figura ordenamendu juridikotan indargabetzearen alde dago”.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakitekoa ea zer alde dagoen, ingeles eskolei eta ingelesezko eskolei dagokienez, Ingelesez Ikasteko Programa edo British programa ezarria duten ikastetxe publikoen artean.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea zer alde dagoen, ingeles eskolei eta ingelesezko eskolei dagokienez, Ingelesez Ikasteko Programa edo British programa ezarria duten ikastetxe publikoen artean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Hezkuntza Departamentuak egin al du inolako analisirik, Ingelesez Ikasteko Programa edo British programa ezarria duten Nafarroako ikastetxeen artean ingeles-klaseei eta ingelesezko klaseei dagokienez dauden aldeei buruz?

– Zer ondorio atera du?

– Departamentuaren ustez egokia al da ikastetxeen artean halako alde handia egotea –asteen 15 saiotik 6 saiora–, bereziki Haur Hezkuntzan? – Departamentuaren ustez egokia al da ikastetxe

bat egotea Haur Hezkuntzako hiru mailetan astean are 6,7 eta 7 saio dituen, beste ikastetxeetan baino askoz ere gutxiago?

– Departamentuaren ustez zer arrazoi egon daiteke halako alde esplikatzeko? Departamentuaren ustez, zerikusirik izan al dezake hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle asko egoteak zenbait ikastetxetan?

– Departamentuak nola azaltzen du ikastetxe batzuek asteko ingeles-eskolak eta ingelesezko eskolak murriztu izana ikasturte honetan, 2016-2017 ikasturtearen aldean (batzuek, baita 2 edo 3 saio ere)?

– Zuzendaritza-taldeekin bilerarik egin al duzue auzia aztertzeko?

– Departamentuaren ustez, alde horiek diskriminaziorik edo aukera-berdintasun faltarik eragin al dezakete ikastetxe ezberdinetan eskolatuta dauden ikasleen artean?

– Departamentuak zer neurri hartu du ingelesezko saio gutxien dauzkaten ikastetxeen beharri-zanei erantzuteko?

– Departamentuak egin al du inolako bilerarik guraso-elkarteekin, ikastetxe ezberdinetan gertatzen diren egoera ezberdinak azaltzeko?

– Departamentuak nola azaltzen ditu asteko ingelesezko eskolei dagokienez ikastetxe publikoen eta itunduen artean dauden aldeak, bereziki Haur Hezkuntzan?

– Departamentua zergatik ez da jartzen Atzerriko Hizkuntzetan Ikasteko Programen aitzindaritzan, Nafarroako hezkuntza-sistemaren planteamendu estrategiko gisa?

– Abenduaren 30eko 147/2016 Foru Agindua-rekin bat, zer hobekuntza-plan ezarri da?

– Departamentuak egin al du ikastetxeko hizkuntza planen gaurkotzearen jarraipenik, eta horietan lagundu al du? Zergatik daude ikastetxeak oraindik ere plan gaurkoturik ez daukatenak?

Corellan, 2018ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

---

## **Galdera, “948 Merkatua” sustatze aldera hedabideetan azaroaren 14an argitaratutako elkarrizketei buruzkoa.**

*CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztutako galdera, “948 Merkatua” sustatze aldera hedabideetan azaroaren 14an argitaratutako elkarrizketei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari a-

txikita dagoen Cristina Altuna Ochotorena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Gazteriarako kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

“948 Merkatua” sustatze aldera Diario de Noticias eta Diario de Navarra egunkarietan 2017ko azaroaren 14an argitaratutako bi elkarrizketak direla-eta:

– Nork egin zituen elkarrizketa horiek?

– Zer hedabidetakoak ziren elkarrizketa horiek egin zituzten profesionalak?

– Elkarrizketen helburua “948 Merkatua” sustatzea baldin bazen, kontseilariaren argazkia zergatik da tamaina horretakoa?

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 12an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

## **Galdera, Gipuzkoako lurralde historikoan bidesariak ezarri eta gero A-15 autobidean eta N-121-A errepidean dagoen trafikoari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Gipuzkoako lurralde historikoan bidesariak ezarri eta gero A-15 autobidean eta N-121-A errepidean dagoen trafikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregela-

menduaren 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Garapen Ekonomikorako Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Iragan urtarrilaren 9an jarri zen abian AT bidesari-sistema berria Gipuzkoako lurralde historikoan, ibilgailu astunak N-1 eta A-15etik igarotzen direnerako.

Sistema hori abian jarri delarik, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzuteko:

– Azken hiru hilabeteetako batez besteko datuekin alderatuta, igo egin al da ibilgailu astunen trafikoa A-15eko edo N-121-A errepideko Nafarroako tartean?

– Departamentuak zer datu neurtu du ibilgailu astunen trafikoari dagokionez errepide horietan, urtarrilaren 9tik erantzun hau ematen den egunera bitarte?

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, beren etxebizitzak Nasuvinsaren alokairu-poltsarako lagatzen dituzten jabeentzako diru-laguntzari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, beren etxebizitzak Nasuvinsaren alokairu-poltsarako lagatzen dituzten jabeentzako diru-laguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamenduaren 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Garapen Ekonomikorako Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Nafarroako Gobernuak honako erabaki hau hartu zuen iragan abenduaren 13an:

1: Eskubide Sozialetako kontseilariari baimena ematen zaio diru-laguntzen deialdi bat izapidetu dezan, beren etxebizitzak Nasuvinsa-Navarra de Suelo y Vivienda SAri "Alokairu-poltsa" etxebizitza-programarako lagatzen dizkioten jabeei zuzendua, banakako ebaluazioko araubidean, 160.000 euroko zenbatekoarekin, 2018rako Gas-

tuen Aurrekontuko "Alokairu-poltsara atxikitako etxebizitzaren jabeentzako diru-laguntzak" 900007-91200-4809-261402 aurrekontu-partidaren kargura.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

– Beren etxebizitzak Nasuvinsari "Alokairu-poltsa" etxebizitza-programarako lagatzen dizkioten jabeen eman nahi zaien diru-laguntza zertarakoa da?

– Zer irizpide baliatuko dira "banakako ebaluazio" horretan, gastatzea baimendu zen 160.000 euroak banatzeko?

– Departamentuak noizko aurreikusten du kasuko deialdia onestea?

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren kudeaketa hobetzeko aurreikusitako neurri buruzkoa.**

### *BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren kudeaketa hobetzeko aurreikusitako neurri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

2017ko maiatzaren 24an Osasun Batzordearen bilkura bat egin zen, eta bertan egon

ziren Osasuneko kontseilaria, Osasuneko zuzendari nagusia eta Nafarroako Odol eta Ehun Bankuko zuzendaria. Besteak beste, Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren kudeaketa hobetzeko pentsaturiko neurriak azaldu zituzten; esaterako:

1. Kontratuei buruzko Foru Legeari egokitzea hemoderibatuen erosketa.

2. Emailerregistroaren erabilzaileak identifikatu eta autentifikatzea, eta intzidentziak datubase ezberdinetan erregistratzea.

3. Plasma-ematearen autosufizientziaren eta sustapenaren helburu estrategikoa dela-eta neurri zehatzak hartzea; esate baterako, Hemoterapiako Batzorde Autonomikoa berraktibatzea edo Hemoterapiari buruzko Nafarroako Plana gaurkotzea, hemoderibatuen autosufizientzia eta odolaren erabilera optimoa lortzeko.

Agerraldi horretatik ia zortzi hilabete igarota, honako hau jakin nahi dugu:

Zein da konpromiso horietako bakoitzaren garapen-maila? Gaur den egunean zer neurri zehatz hartu da konpromiso horiek lortzeko? Zer neurri aurreikusi dira? Zein epetan?

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 16an.

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, ikasleak terrorismoa dela-eta kontzientziatze aldera ikastetxeetan jarduketak egiteko programari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, ikasleak terrorismoa dela-eta kontzientziatze aldera ikastetxeetan jarduketak egiteko programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Hezkuntzako kontseilariak adierazi du, abenduaren 13an Madrilen egindako bilera bati buruzko galdera bati erantzutean –bilera horretara joan ziren autonomia erkidegoen ordezkariak eta Terrorismoaren Biktimei laguntzeko Espainiako Gobernu zuzendari nagusia; Nafarroako Gobernuaren izenean, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia izan zen–, ezen Hezkuntza Departamentuak eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak bilera bat egiten dutela laster, Madrileko bilera hura aztertzeke.

Halaber, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak eta Terrorismoaren Biktimei elkarrekin urtarrilaren 17an Iruñean egindako bileran, Olo andreak besteak beste

adierazi zuen ikastetxeei zuzendutako programa bat prestatzen ari dela Gobernuak.

Horrenbestez, hauexek jakin nahi dugu:

1.- ¿Zer arauditan oinarrituta eta zer unitate didaktikorekin egiten ari dira, ikastetxeetan, terrorismoa dela-eta ikasleak kontzientziatzeko jarduerak? Zehaztu egindako jarduerak bakoitzari buruz.

2.- Hezkuntza Departamentuaren eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren ordezkariak zer bilera egin dituzte ikastetxeetan garatzen ari diren ekimenak aztertzeke? Zehaztu datak, parte-hartzaileak eta lortutako akordioak.

3.- Hezkuntza Departamentuak ezagutzen al du Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ikastetxeetarako iragarri duen programa? Zehaztu zer material didaktiko erabiliko den.

4.- Nafarroako Gobernuak zer iritzi du horri buruz?

5.- Terrorismoaren Biktimei buruzko Legeak ezartzen du jarduerak egiten direla terrorismoaren aitzinean bizikidetasuna sustatzeko. Hezkuntza Departamentua zer ari da egiten lege hori betetzeko?

6.- Terrorismoaren Biktimei laguntzeko Espainiako Gobernu zuzendari nagusiak proposatu du terrorismoaren biktimei Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetara joatea, terroristen ekintzek eragindako kalteei buruzko zuzeneko lekukotasuna eman diezaieten ikasleei, Madrileko erkidegoan jada egiten hasi diren moduan. Hezkuntza Departamentuak zer deritza proposamen horri?

7.- Hezkuntza Departamentuak zer plangintza darabil gogoan, programa horiek jorrateari begira?

Corellan, 2018ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, ingelesezko murgilketa barnetegietara joateko plaza-kopurua murrizteko arrazoiei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, ingelesezko murgilketa barnetegietara joateko plaza-kopurua murrizteko arrazoiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– 2017an eta 2016an 2.400 plaza eskaini ziren ingelesezko murgilketa barnetegietara joateko, eta kopuru hori 2.300era murriztu da 2018an, nahiz eta iaz 1.000 ikasle gelditu ziren programa

horretatik kanpo. Zergatik murriztu da English week murgilketa programa horretara joateko plaza-kopurua?

– Zergatik aldatu da programaren deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea (abenduaren 15etik 29ra)?

– Departamentuaren ustez, egokia al da epea abenduaren 29an bukatzea, Gabonak direla-eta ikastetxeak oportetean daudenean?

– Departamentuak ikastetxeei garaiz ohartarazi al die epeak aldatu direla?

– Noiz ebatziko da deialdia?

– Departamentuaren ustez, barnetegi horietara joateko 2.300 plaza aski al dira dagoen eskaria ikusita?

– Departamentuak ikastetxeen inolako komunikaziorik jaso al du, datak aldatu izanaren ondorioz eskabidea bidali ezin izana dela-eta?

– Zer ikastetxek egin dute ikastaroetan parte hartzeko eskabidea?

– Zenbat ikaslerentzako eskabidea egin du ikastetxe bakoitzak?

– Guztira zenbat ikasle eskatu dute plaza bat deialdian?

Corellan, 2018ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera



## **Galdera, ikastetxeetan fruta eta barazkien banaketa atzeratu izanaren arrazoiei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, ikastetxeetan fruta eta barazkien banaketa atzeratu izanaren arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Badira zenbait urte eskoletan fruta eta barazkiak kontsumitzeari buruzko programa egiten dena.

Kanpaina hori Haur Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetakoei zuzendua da.

Programak bi fase ditu. Bigarren fasea azaroan eta abenduan egin ohi da.

Hori dela eta, honako hau galdetzen diot Hezkuntza Departamentuari:

– Zergatik atzeratu da ikastetxeetan fruta eta barazkien banaketa?

Corellan, 2018ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, guraso bakarreko familiek familia eta lana bateragarri egiteko 2017ko laguntzen deialdiari buruzkoa.**

*MÓNICA DOMENECH LINDE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Domenech Linde andreak aurkeztutako galdera, guraso bakarreko familiek familia eta lana bateragarri egiteko 2017ko laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– 2017ko deialdian zenbat pertsonak aurkeztu zuten familia gurasobakarrentzako bateragarritasun-laguntzetarako eskabidea?

– Zenbat laguntza eman ziren 2017ko deialdi horretan?

– Zenbat laguntza ukatu ziren 2017ko deialdi horretan? Zergatik?

– Gaur den egunean, zenbat familia gurasobakar aitadun eta zenbat amadun dago Nafarroako Foru Komunitatean? 2017ko xehetasun gaurkotua jaso nahi dut, familia-egoeraren arabera xehakaturik.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

---

## **Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak bere gain hartuta ote daukan dominei edo beste errekonozimendu-motaren bati lotutako inolako pentsio-gasturik.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak bere gain hartuta ote daukan dominei edo beste errekonozimendu-motaren bati lotutako inolako pentsio-gasturik.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Jakin nahi dut ea Nafarroako Gobernuak hartuta bere gain ote daukan dominei edo beste errekonozimendu-motaren bati lotutako inolako pentsio-gasturik.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Euskararen Nafar Kontseiluko bost kideak hautatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen abuztuaren 28ko 130/2015 Foru Dekretuaren 26.4 artikuluan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuari dagokio Euskararen Nafar Kontseiluko bost kide izendatzea.

Legebiltzarreko Erregelamenduan ez da hautespren hori egiteko prozedurarik aurreikusten; beraz, Erregelamendu horren 37.1.9 artikuluan ezarritakoaren babesean, bidezkoa da Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hautespren hori erregulatzen duten arauak onetsi ditzan.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du, 130/2015 Foru Dekretuan jasotzen diren xedapenekin bat.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako Parlamentuak izendatu beharrekoak diren Euskararen Nafar Kontseiluko bost kideak hautatzeko prozesua hastea.

**Bigarrena.-** Honako arau hauek onestea:

“1. Nafarroako Parlamentuak bost pertsona hautatuko ditu Euskararen Nafar Kontseiluko kide izateko.

2. Talde parlamentarioek bost pertsonaz osatutako hautagaitzak aurkezten ahalko dituzte, banaka nahiz batera. Hautagaitzaren hiru pertsona sexu batekoak izanen dira, eta bi beste sexukoak. Titular bakoitzerako ordezkoko bat izendatu beharko da, titularraren sexu berekoa izanen dena.

3. Talde parlamentarioek idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari hautagaitzak aurkezteko, eta idazki horretan jasota ageriko da proposatutako hautagaien oniritzia.

4. Talde parlamentarioek edo foru parlamentarien elkarteek Euskararen Nafar Kontseiluko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea 2018ko otsailaren 12ko 09:30ean bukatuko da.

5. Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak haiek kalifikatuko ditu, eta ondoren, kasua bada, aldarrikatu egingen ditu.

6. Euskararen Nafar Kontseiluko bost kideen hautaketa Legebiltzarraren Osoko Bilkuran egingen da, isilpeko bozketaren bidez.

7. Txartelen bidez egingen da bozketa, eta foru parlamentari bakoitzak gehienez ere hiru hautagaien izenak jarri ahalko ditu txartelean.

8. Mahaiak boto-kontaketa egingen du, eta boto gehien eskuratu dituzten bost hautagaiak hautatu direla aldarrikatuko du. Genero-zuzenketako irizpide bat aplikatuko du, halako moduz non, sexu bereko hiru pertsona suertatzen badira hautatuak, beste biak boto gehien eskuratu dituzten beste sexuko bi hautagaiak izanen baitira.

9. Proposamenean eragina izan dezaketen balizko berdinketak ebatziko dira boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko beste bozketa baten bidez. Berdinketak bere horretan baldin badirau, boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bozketak egingen dira, harik eta berdinketa hautsi arte, aurreko apartatuan xedatutakoaren kalterik gabe”.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen eta kontrataturiko langileen 2018ko ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak proposamen bat aurkeztu zuen, Nafarroako Parlamentuko funtzionarioen eta kontrataturiko langileen 2018ko ordainsariei buruzkoa.

Hori dela eta, legelari nagusiak informatu zuen Legebiltzarrak bere langileen ordainsarietarako eguneratze-portzentajea finkatzeko daukan autonomiaren gainean, bai eta eguneratze hori Langileen Batzordearekin negoziatzeko betebeharraren gainean, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 34.2 a) artikuluan eta Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuko 83.6 b) artikuluan –zeina osagarri moduan aplikatzekoa baita– xedatutakoarekin bat.

Hori horrela, 2018ko urtarrilaren 15ean Mahaiak onetsi zuen Langileen Batzordearekin negoziatzea Legebiltzarreko langileen 2018ko ordainsarien eguneratze-proposamena, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileen-tzat 2018rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren arabera.

Proposamena Langileen Batzordeari bidalita, honek adierazi du horren berri izan duela.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

**1.** Ezartzea ezen, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Legebiltzarreko langileen 2018rako ordainsariek gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2018rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globala.

**2.** Onestea maila bakoitzaren hasierako soldatak 2018. urterako. Hauek dira haien urteko zenbatekoak:

Maila	Urteko zenbatekoa
A	25.789,96 euro
B	21.696,22 euro
C	17.997,84 euro
D	15.674,82 euro

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **2018an indarrean dagoen Nafarroako Parlamentuaren plantilla organikoa aldatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu orokorretako buruak Nafarroako Parlamentuaren plantilla organikoa aldatzeko proposamena aurkeztu du, behin Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta langileen arteko 2017tik 2019ra bitarteko urteetarako hitzarmenean onetsitako lanpostu osagarrien igoera aplikatu ondoren.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

**1.** Onestea Mahaiaren 2016ko otsailaren 15eko erabakiaren bidez onartutako eta 2017ko abenduaren 28ko erabakiaren bidez aldatutako Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoaren ondoko aldaketa hau, 2018ko urtarrilaren 1eko atzera-eraginez.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuko web orrian argitara dadin.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## a) Funtzionarioak

	Kop.	Maila	Izendapen librea	Esklusi-bitatea	Bateriaezin tasuna	Lanpostu osagarria	Mailako osagarria	Berariazko osagarria	Arrisku bereziko osagarria
<b>IDAZKARITZA NAGUSIA</b>									
Legelari nagusia (1)	1	A	X	55		92.20		35	
<b>Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren idazkaritza</b>									
Administrari burua (2)	—	C	X			67.18	12		
Administraria	2	C				57.18	12		
<b>ZERBITZU JURIDIKOAK</b>									
Legelariak	5	A		55		75.20			
<b>ZERBITZU OROKORRAK</b>									
Zerbitzu Orokorretako burua (3)	—	B	X	55		53.80			
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	43.80			
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A			35	45.20			
Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	2	B			35	43.80			
Administrariak (4)	5	C				57.18	12		
Mantenimenduko ofizial teknikaria	1	C				51.00	12		10
Gelazain nagusia (5)	—	D				57.50	15		
Gelazainak (6)	11	D				47.50	15		
<b>PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA</b>									
Prentsako burua	1	A		55		75.20			
Komunikazio teknikaria	1	A			35	45.20			
Itzultzaileak (7)	5	A		55		29.20			
Protokoloko teknikaria (8)	1	B			35	43.80			
Administrariak (4)	2	C				57.18	12		
Transkriptoreak (4)	6	C				57.18	12		
<b>ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZERBITZUA</b>									
Artxibo eta Liburutegiko burua	1	A		55		55.20			
Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	2	B			35	43.80			
Administrariak (4)	2	C				57.18	12		
<b>KONTU-HARTZAILTZA ETA EKONOMIA GAJETARAKO ZERBITZUA</b>									
Kontu-hartzailetzako burua	1	B		55		53.80		15	
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	2	B			35	43.80			
Administrariak	2	C				57.18	12		
<b>NAFARROAKO ARARTEKOAREN BULEGOA</b>									
Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	1	B			35	43.80		20	
Administraria	2	C				57.18	12		

(1) Parlamentuko Mahaiak izendaturikoa, Lehendakaritzak proposaturik, Parlamentuko legelarien, Kontuen Ganberako legelarien edo Nafarroako Gobernuaren aholkulari juridikoen artean. Plantilla organikoaren argitaratze-egunean, Nafarroako Gobernuaren Aholkularitza Juridikoko funtzionario batek betetzen du lanpostu hau.

(2) Izendapen librea, Parlamentuko administrarien kidegoko funtzionarioen artean.

(3) Izendapen librea, Parlamentuko administrazio-kudeaketako mailaertaineko teknikarien artean.

(4) C1 mailako euskara-titulua duen lanpostua.

(5) Merezimenduen lehiaketa bidez izendatua, gelazainen kidegoko funtzionarioen artean.

(6) Mantentze-lanak egiteko atxikitako lanpostua.

(7) Itzulpen eta interpretazio eginkizunak dituen lanpostua.

(8) B1 mailako ingeles-titulua duen lanpostua.



